

Esleitzeko prozedura

1.- Parte hartzeko inskripzioa.

- Zerrendak egiteko, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren Etxebizitza Eskatzaileen Udal Erregistroan izena eman duten zein eman ez duten eta esleitzeko prozedura zehatzean parte hartzeko eskaera modu frogagarrian eta berariaz egiten duten pertsonak hartuko dira kontuan.
- Parte-hartzea ez berrestek ez du inolako penalizaziorik eta bazterketarik eragingo etorkizuneko esleipen-prozesuetan.
- **Inskribatzeko moduak:**

- **Baliabide elektronikoak erabiltzearen bidez.** Horretarako, udal-webgunearen bitartez jo beharko dute izapide espezifikorara.

Hala ere, etxebizitza-eskatzaile guztiei izapide hori posta elektronikoz edo sms bidez online egiteko esteka bat eta bilagailu bat (pasahitza) igortzea aurreikusi da, beren espedienteetan sartu ahal izan daitezen, hala badagokio aldatu ahal izan dezaten eta inprimakia bete ahal izan dezaten.

- **Aurrez aurre**, eskabidea honako hauetan aurkeztearen bidez:
 - gure bulegoetan (Erregina Erregentearen kalea, 8, behe), 9:00etatik 14:00etara
 - Udalinfoaren bulegoetan (Easo kalea, 41), 9:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

- **Dokumentazioa:**

Ez da **ezin dokumentaziorik** aurkeztu behar. Eskabidean, parte hartzeko betekizunak betetzearen eta barematu beharreko zirkunstantzien inguruko zinpeko deklarazio bat egin behar da.

Ondorengo izapide batean, eta hautatutako pertsonen/bizikidetzaren unitateek soilik, espezifikoki eskatzen zaien dokumentazioa aurkeztuko dute.

2.- Behin-behineko zerrendak: (Baremazioa)

- Eskabideak jasotzeko mugako epera iritsi ondoren, eskabide bakoitzarekin batera aurkeztutako datuak eta dokumentazioa aztertuko dira eta, berrikuspen horren arabera, onartutako eta baztertutako parte-hartzaileen behin-behineko zerrendak egingo dira.

Onartutako pertsonen zerrendan, oinarri hauen 8. atalean adierazitako baremoei jarraikiz pertsona edo bizikidetzaren unitate bakoitzari **esleitutako puntuazioa eta dagokion kupoa adieraziko da.**

Baztertutako pertsonen zerrendan, baztertzeko arrazoia azalduko da.

- Zerrenda horiek Udalaren webgunean (www.donostia.eus) emango dira argitara, Gipuzkoako lurralde historikoko tiradarik handieneko egunkari batean iragarki bat euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu ondoren. Zerrendak Donostiako Etxegintzaren bulegoetan kontsultatu ahal izango dira.

3.- Erreklamazioak aurkezteko epea:

- 10 egun baliodun, argitaratzen direnetik aurrera zenbatzen hasita.
- Baztertu izana edo jasotako puntuazioa erreklamatu ahal izango da, oinarriekin bat ez datorrelako.

4.-Behin betiko zerrendak:

- Erakundearen Administrazio Kontseiluak **erreklamazioak ebatzi eta hautatutako pertsonen behin betiko zerrendak onartuko ditu**. Zerrenda horiek Udalaren webgunean egongo dira eskuragarri, probintziako tiradarik handieneko egunkarietan euskaraz eta gaztelaniaz iragarki bat argitaratu ondoren.
- Behin betiko zerrenda horietan, honako datu hauek agertuko dira:
 - Eskabidean lehenengo agertzen denaren izena eta nortasun-agiri nazionala.
 - Zer kupotarako parte hartzen den.
 - Emandako puntuazioa, atal bakoitza bereizita.
- Zerrendak onartzen dituen erabakiaren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa edo, hala badagokio, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian.
- Zerrendetan hautatutako pertsona izateak ez du esan nahi eskatutako baldintzak eta betekizunak betetzen direnik, haiek alokairu-kontratuak sinatu aurretik egiaztatuko baitira.

5.-Etxebizitzen esleipena:

- Aldez aurretik ezarritako ordenari jarraikiz esleitu dira etxebizitzak, honako hauek kontuan hartuta: **pertsonak eta familia-unitateek zer kupotan parte hartuko duten, eta lortutako puntuazio-ordena**, eskatzaile bakoitzak aurkeztutako dokumentazioaren arabera eta baremoa aplikatuta.
- Aurkeztutako errekurtsoak baiesten badira, esleipendunen zerrenda eta itxarote-zerrenda aldatu egingo dira, oinarri arautzaileei jarraikiz merezi dituzten pertsonen emandako edo kendutako puntuen arabera.
- Eskuragarri dauden etxebizitzak eta bizitokiak une bakoitzeko itxarote-zerrendako bizikidetz-unitateei esleitu zaizkie, etxebizitza eta/edo bizitokia bizikidetz-unitatearentzat egokia den kontuan hartuta, eta etxebizitza-tipologiak bizikidetz-unitatearen premietara egokituko dira ahal den neurrian.

6.- Hautatutako pertsonen jakinaraztea:

- **Baremazioa egin eta etxebizitzak esleitu ondoren**, hautatutako pertsonen pertsonalki jakinaraziko zaie, eta, hala badagokio, **nahitaez bete beharreko betekizunei buruzko dokumentazioa edota baremazioarako emandako datuak** adieraziko zaie epean **aurkezteko** eskatuko zaie.
- Adierazitako errekerimendua betetzen ez duten pertsona guztiek atzera egin dutela ulertuko da, eta, kasu horretan, aukera emango zaie dagokion itxarote-zerrendan agertzen diren hurrengoei.

7.- Behin-behineko esleipendunak:

- Hautatutako pertsonak **behin-behineko esleipendunak izango dira, haien datu pertsonalak eta aurkeztu duten dokumentazioa zuzenak direla eta eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ondoren**.
- Kontratua sinatu aurretik eskatutako betekizunak eta baldintzak betetzen ez dituztela egiaztatzen bada, pertsona edo bizikidetz-unitate horiek plaza huts bat utziko dute, eta itxarote-zerrenden ordenaren arabera beteko da, baldintza hauen bigarren atalean aurreikusitako kasuan izan ezik.
- Esleitzeko prozedura interes publikoko edo gizarte-intereseko arrazoiengatik eten ahal izango da, baita erakundeaz kanpoko zirkunstantziak etxebizitzak entregatzea eragozten duten kasuetan ere. Nolanahi ere, etete horrek ez du sortuko Etxegintzaren aurkako kalte-ordain ekintzarik.
- Behin-behineko esleipendunek etxebizitzaren alokairu-kontratua sinatu arte eta, ondoren, errentarizaera duten bitartean bete behar dituzte babes publikoko etxebizitzak lortzeko ezarritako legeko baldintzak eta betekizunak, etxebizitza-jabetzen gabeziari dagokionez.

8.- Behin betiko esleipendunak:

- **Alokairu-kontratua sinatzeko izapidea egin ondoren**, behin-behineko esleipendunak behin betikoak izango dira. Ildo horretan, bizikidetzaren unitateko pertsona guztiek titularkide izan behar dute nahitaez, eta guztiek bete beharko dute errentamendu-kontratua.
- Behin-behineko esleipenduna kontratua sinatzeko egintzan justifikaziorik gabe agertzen ez bada, pertsona edo bizikidetzaren unitate horrek esleipenean atzera egin duela ulertuko da, eta, horren ondorioz, itxarote-zerrendetan dagoen hurrengo pertsonari edo bizikidetzaren unitateari aukera emango zaio, baldintza hauen bigarren atalean adierazitakoaren kasuan izan ezik.

9.- Itxarote-zerrenda:

- Esleipenean ezarritako ordenari jarraikiz, honako kasu honetan esleitu gabe geratzen diren etxebizitzak eskuratzeko itxarote-zerrendak egingo dira:

aurreko sustapenetan esleitu gabe geratu diren etxebizitzak hartzeko, eta erakunde honek alokairuko etxebizitzak esleitzeko prozedura berriak egin arte egongo dira indarrean zerrenda horiek; hortaz, etorkizuneko prozedura horien emaitzazko itxarote-zerrendek aurrekoak ordeztuko dituzte.
- Kasu horretan, esleipendunak gabe geratu diren etxebizitzak dagokien kupoaren arabera eskuratu dira, baldintza hauen bigarren atalaren azken paragrafoan ezarritakoaren kasuan izan ezik.
- Itxarote-zerrendak Udalaren webgunean kontsultatu ahal izango dira.

10.- Uko egitea:

- Etxebizitza baten esleipenari uko eginez gero, ezin izango da parte hartu etxebizitza eskuratzeko araubide berari eta etxebizitza-tipologia berari lotutako ondorengo prozeduretan.
- Edonola ere, bizikidetzaren unitatearen denean edota banantzea edo dibortzioa gertatzen denean, bikotea osatzen zuten bi pertsonetako batek uko egiteak ez du eragotziko besteak esleipen-prozesuarekin jarraitzeko aukera, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 15.3 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.
- Hala ere, bizikidetzaren unitateko kide bakoitzeko 15 m² erabilgarriko ratioa baino azalera erabilgarri txikiagoa duen etxebizitza bat esleitzeari uko egiteak ez du eragotziko ondorengo prozeduretan parte hartzeko aukera.
- Uko egiteagatik behin-behineko esleipendunak gabe geratu diren etxebizitzak esleitu gabekotzat hartuko dira, eta dagokion kupoaren itxarote-zerrendan agertzen den hurrengo pertsonari edo bizikidetzaren unitateari eskainiko zaizkio, baldintza hauen bigarren atalean ezarritakoaren kasuan izan ezik.

9.- Baremazioa berritzea:

- **Gutxienez urtean behin**, esleipendunen zerrenda berritu egingo da bizikidetzaren unitateari berriz ere puntuak ematearen bidez. Nolanahi ere, eskuragarri dagoen azken ekitaldiko datu fiskalen kargarekin berrituko da.
- Era berean, emandako baremazioaren kuantifikazioa alda dezaketen inguruabar pertsonal guztien aldaketa jakinarazi beharko diote etxebizitza-eskatzaile gisa inskribatuta dauden pertsonen Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoari.



▶ Etxegintza
Vivienda

